



BILBAO-BIZKAIA
UR PARTZUERGOAREN
ESTATUTUAK

2019ko Ekaina



HITZAURREA

1. 1967ko martxoaren 17an Partzuergo bat eratu zen Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbao, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Muskiz, Ortuella, Valle de Trapaga-Trapagaran, Santurtzi, Sestao eta Zaratamoko udalerrien (gaur eguneko izenak) eta Corporación Administrativa Gran Bilbao elkartearen artean, estatutuen 5. artikuluan jaso ziren tokiko intereseko zerbitzuak ezarri eta kudeatzeko: Eskualdeko urak eta saneamendua lehen mailako sarean ezarri eta ustiatzea, zerbitzu horien tokiko sareak ezarri eta ustiatzeko laguntza ekonomikoa eta helburu horiek betetzeko aholkularitza teknikoa. Gero, 1972an, helburuak zabaldu egin ziren eta, horrela, udalen bigarren mailako tokiko sareetako bezeroen kudeaketa eta sare horien mantentze eta ustiaketa egiten hasi zen, partzuergoratutako udalerrietatik edozeinek eskatuz gero.

Partzuergoan sartu ziren udalerriei dagokienez, hasieran Partzuergoa osatzen zuten 19 udalerriez gain, Alonsotegi, Derio, Erandio, Loiu, Sondika, Zamudio eta Zierbena 1967an Partzuergoko kide ziren udalerrietatik desanexionatu zirenean hasi ziren Partzuergoko kide eraz izaten. Ondoren, 1993an, Barrika, Gamiz-Fika, Gorliz, Plentzia, Sopela eta Urduliz sartu ziren. 1994an, Laukiz eta Mungia. 1996an, Ubidea eta Ugao-Miraballes. 1997an, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Igorre, Lemoa eta Zeanuri. 1999an, Durango, Gordexola, Gueñes, Iurreta, Izurtza, Lemoiz, Mañaria, Zaldibar eta Zalla. 2000n, Balmaseda eta 2003an, Morga. Horien ostean, ondokoak sartu dira: 2006an, Atxondo, Elorrio, Fruiz, Gatika eta Maruri-Jatabe; 2007an, Dima, Etxebarria eta Markina-Xemein; 2008an, Lekeitio, Mendexa eta Ziortza-Bolibar; 2009an, Amoroto, Aulesti, Gizaburuaga, Ispaster, Munitibar eta Zeberio; 2010ean, Ondarroa; 2011n, Ereño; 2012an, Abadiño, Bakio, Berriatua eta Urduña, eta 2013an, Galdames, Sopena eta Turtzioz.

2. Hasi batean, Partzuergoko zuzendaritza-organoak, Batzar Nagusiak, ondokoak barne hartzen zituen: udal guztiak, Corporación Administrativa Gran Bilbao elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Obra Publikoen Zuzendaritza Batzordea.

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 18ko 3/1980 Legearen arabera, Corporación Administrativa Gran Bilbao elkarteak iraungi egin zen, eta Eusko Jaurlaritzak hartu zuen haren tokia Batzar Nagusian.

Bestetik, autonomia erkidegoei eskumen eta zerbitzuak eskualdatzeko prozesuaren eta 1985eko Uren Legean xedatutakoaren ondorioz, Lan Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusia bertan izatea bidegabekotzat jo zen, baina Arro Erakundeak Partzuergoko gobernu organoetan izateko aukera aurreikusi zen, horrela erabakiz gero.

3. 1997an, Batzar Nagusiak erabat aldatu zituen Estatutuak, izan ere, derrigorrean egokitu behar izan zituen Estatutuak Bizkaiko Udalez Gaindiko Erakundeak Araupetzeari buruzko martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauari; gainera, Partzuergoan eragina zuten toki erregimeneko arauetan nahiz sektorialetan izandako legegintzako aldaketa sakonak Estatutuaren barne hartu behar izan ziren.



Era berean, 2004an, Estatutuen beste aldaketa bat onartu zen. Batez ere, boto sistemaren aldaketa izan zuen xede aldaketak, eta, horrela, partzuergoratutako erakundeen ordezkarietako bakoitzak boto bat izan beharrean, udalerrri bakoitzak zeukan biztanle kopuruaren arabeko boto kopuru proportzionala izango zuen, orokorrean izaten diren ordezkari-tza-irizpide nagusiekin bat etorrira.

2014an, Estatutuak beste behin aldatu ziren, honako bi legeei egokitzeko: 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzkoa eta 15/2014 Legea, irailaren 16koa, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurriari buruzkoa. Estatutuen aldaketa horren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren atxikipena gertatu zen.

2019an ere estatutuak aldatu egin dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeari egokitzeko. Lege horrek oinarrian partzuergoen araubide juridikoa ezartzen du. Eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeari egokitzeko.



ATARIKO XEDAPENAK

LEHENA Estatutu hauek Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak arautzeari buruzko martxoren 30eko 3/95 Foru Arauan ezarritakora egokituta daude, baita Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen aurreikuspenetara eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea ere.

BIGARRENA Estatutu hauen edukina betetzeko definizioa hauek ematen dira:

Ur-hornidurak bi zerbitzu hauek biltzen ditu: “ekartze” edo oinarrizko sarerako hornidura eta “banaketa” bigarren mailako sarerako hornidura. Saneamenduak, estoldak (bigarren mailako sarerako saneamendua) eta “tartean hartzea/arazketa” (oinarrizko sarerako saneamendua).

. *Oinarrizko sarerako hornikuntza “Alta”rako hornidura edo Ekarpen zerbitzua.*

Ondorengo funtzioak biltzen ditu: Ura hartu edota aurkitu, bildu, garraiatu, tratatu eta eramatea banaketa-sareko ur-biltegi nagusi edo azken kontsumo handia duten erabiltzailei.

. *Bigarren mailako sarerako hornikuntza , “baja”rako hornidura, edo banaketa zerbitzua.*

Egiteko hauek biltzen ditu: oinarrizko saretik hornitzen den ura biltegietan batu eta azken erabiltzaileen instalazioak lotzen dituzten ur-hartunekin hoditeriaren bidez banatzea (egoitza, denda, industri eta gainerako establezimenduetara).

. *Bigarren mailako Sarerako saneamendua edo Estoldak.*

Egiteko hauek betetzen ditu: Etxe-, industri- edo euri-urak etxe edo industri-ur hartune, kainozulo eta isurbidetatik jaso eta saneamenduko oinarrizko sarera edota bere berezko ur ingurunera isurtzea.

. *Oinarrizko sarerako Saneamendua, edota, tartean hartu eta arazketarako zerbitzua.*

Kolektore eta tartekagailu nagusiak, (estoldak eta hondakin-uren araztegiak elkarrekin lotzen dituzte), araztegiak (tratamendurako eta hondakinak iraitzeko instalazioak) eta isurleak (ur-araztua ur-ingurune hartzailera itzultzen dute) biltzen ditu.



I KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. Eraketa.

- 1.- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa toki partzuergo bat da, eta honako hauek eratzen dute, Abanto-Zierbena, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbao, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Muskiz, Ortuella, Valle de Trapaga-Trapagaran, Santurtzi, Sestao eta Zaratamo udalerriek eta Corporación Administrativa Gran Bilbao elkarteak (elkarte horren funtzioak, gero, abenduaren 18ko 3/1980 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzaren esku geratu ziren) 1967ko martxoaren 17an sortutakoa, hasieratik Bizkaiko Probintziako Diputazioaren partaidetza izan duena (gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiak betetzen ditu erakunde horren funtzioak), eta, gerora, Abadiño, Alonsotegi, Amoroto, Arantzazu, Areatza, Artea, Atxondo, Aulesti, Bakio, Balmaseda, Barrika, Bedia, Berriatua, Derio, Dima, Durango, Elorrio, Erandio, Ereño, Etxebarria, Fruiz, Galdames, Gamiz-Fika, Gatika, Gizaburuaga, Gordexola, Gorliz, Güeñes, Igorre, Iurreta, Ispaster, Izurtza, Laukiz, Lekeitio, Lemoa, Lemoiz, Loiu, Mañaria, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mendexa, Morga, Munitibar, Mungia, Ondarroa, Orduña/Urduña, Plentzia, Sondika, Sopela, Sopena, Trucios/Turtzioz, Ubide, Ugao-Miraballes, Urduliz, Zaldibar, Zalla, Zamudio, Zeanuri, Zeberio, Zierbena eta Ziortza-Bolibar udalerriak gehitu zaizkiona, estatutu hauek eraenduko dute, eta, estatuetan aurreikusten ez diren kasuetarako, kasu bakoitzean aplikatzekoa den arautegiak eraenduko du.
- 2.- Ibai-Arroko Erakundeek Estatutu hauetan jarriko diren baldintza eta ahalmenekin, Partzuergoan ordezkaturik egon ahal izango dute.
- 3.- Erakunde publiko berriak eskubide osoko kide legez sartzea baimendu ahalko da, betiere eskatu egin badute. Horretarako Estatutuek jarritako jardunbide eta betekizunak beteko dira; nolahi ere, Batzar Nagusiak kasu bakoitzerako baldintza orokor eta zehatzak ezarri ahalko ditu.
4. Sektorre Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120.1 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 105.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Partzuergoa Bizkaiko Foru Aldundira atxikita egongo da.
5. Partzuergoko ondarearen eta langileen araubide juridikoa, zein aurrekontu, kontabilitate eta ekonomia eta finantza kontroleko araubidea, Partzuergoari dagokion Administrazioarena izango da.

2. ARTIKULUA. Izena eta egoitza.

Eratuko den erakundeak BILBAO-BIZKAIako UR-PARTZUERGEOA izena hartuko du. Bere egoitza nagusia Bilbon, Bizkaia egongo da.

Egoitzaz aldatzeko baimena Batzar Nagusiak emango du; Estatutu hauek aldatzea ez da beharrezkoa izango, eta osatzen duten erakundeei emango zaie horren berri.



3. ARTIKULUA. Nortasun eta Gaitasun juridikoa.

Partzuergoak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta Bizkaiko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen martxoaren 30eko 3/95 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, helburu zehatzak betetzeko izaera eta gaitasun juridikoa izango du, baita jarduteko gaitasuna ere.

4. ARTIKULUA. Administraziozko ahalgoak.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta 3/1995 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, helburuak betetzeko BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOARI honako administrazio ahalmen hauek dagozkie:

- a) Arautzekoa eta autoantolatzekoa.
- b) Zergak eta dirubideak jartzekoa. Azken kasu honetan kanpo geratzen dira zerga izaera duten tributuak jartzeko ahalgoa.
- c) Programak edo planifikazioa egitekoak.
- d) Legebidezkotasuna duela uste izatekoa eta dagozkion egintzak izatekoa.
- e) Dagozkien egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusiak izatekoa.
- f) Desjabetzapena egitekoa.
- g) Beterrazpena derrigortsaunez eta zehapenez egitekoa.
- h) Dauzkaten ondasunak ikertu, zedarritu, maisterrak administrazio bidez bota eta ofizioz eskuratzekoa.
- i) Dauzkaten ondasun eta eskubideak bahitu ezinak izatekoa, Toki-Ogasunak kredituak emateko dituen lehenespenak eta lehentasunak eta aitortutako gainontzeko eskubideak, Foru eta Estatuko Ogasunei aitortutakoetan kalteta jo gabe.

5. ARTIKULUA. Partzuergoaren Indarraldia.

Partzuergoaren iraupena, bera ziotu duten helburuen izaera iraunkorra dela eta, mugagabea izango da. Hori, jakina honako Estatutuetan ezarritako zioen eta jardunbidearen arabera desegina gertatzearen kaltetan izan gabe.



II KAPITULUA

PARTZUERGOAREN HELBURUAK ETA ESKUMENAK

6. ARTIKULUA. Helburu Orokorrak.

1. Partzuergoak helburu nagusitzat du hiri-uraren zikloaren kudeaketa osoa, zerbitzuaren kalitatearen homogeneousuna eta lurralde-eremu horretan tarifa bateratuak erabiltzearen oinarrietan sustraiturik, berau osotzen duten lurralde-eremuan Ur Hornikuntza eta Saneamendu zerbitzua ematea.
2. Halaber, Partzuergoak tokiko-beste herri-zerbitzu batzuk eman ahal izango ditu, elkaturiko Erakundeek berariz eskatzen badute.
3. Bere helburu orokorrak betetzeko eraginkortasuna indartuko duten jarduera osogarriak edo hauetatik sortzen direnak egin ahal izango ditu.

7. ARTIKULUA. Helburuak betetzeko garapenbideak.

1. Partzuergoak berak beteko ditu elkaturiko udalerrri guztietan oinarrizko sarean hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak eta bigarren mailako sarerako abonatuaren kudeaketa. Guzti hori udal ur-baliabideen titulartasuna eta ustiapena Udalen esku izatearen kaltetan jo gabe, hauek Partzuergoari eskualdatzea berariz erabakitzen ez duten bitartean.
2. Bigarren mailako sareen ustiapena, mantenimendu eta berriztatzea Partzuergoak, Udalek eskatuta, egingo du, ahalbide teknikoak eta diruzkoak uzten duten neurrian.
3. Partzuergoak eroslehentasun eskubidea izango du, udaletariko baten batek, ur-hornikuntza edo saneameduko bigarren mailako sareen ustiapena eta mantenimendua zeharka kudeatzen erabakitzen badu. Partzuergoak eroslehentasun eskubidea egikaritu beharko du Udalak zerbitzua zeharka kudeatzeko asmoa azaldu eta honen baldintzak berri modu sinesgarrian jakinarazi ondorengo hiru hilabeteko epean. Partzuergoak hiru hilabeteko epean erabakiaren berririk ez badu ematen eroslehentasun eskubideari uko egiten diola ulertuko da.
4. Bigarren idazatian jarritako zerbitzua Partzuergoak kudeatuz gero, beronetik ateratzen diren diru-sarrerak Partzuergoak berak jaso eta, emate horrek dakartzan antolatzeke eta autoantolatzeke ahalgoak bereganatzea eragingo du.

8. ARTIKULUA. Eskumenak.

Bere helburuak betetzeko ondorengo berarizko eskumenak egikarituko ditu:



1. Elkaturiko udalak ur-hornikuntza eta saneamendu arloan dituzten behar-izanak aztertu eta horiek betetzeko egokitzat jotzen diren planak eta proiektuak egitea.
2. Ur-hornikuntza eta saneamendu arloko emakida eta hondakin-uren isurketen beharrezko baimenatarako eskaerak.
3. Ur-hornikuntza eta saneamendurako obrak eta instalazioak egitea eta baita horien artapen eta ustiapena.
4. Ur-hornikuntza eta saneamendu zerbitzuak bere lurralde-eremuan araupetzea, horien zerbitzu-ematea bereganatzen duen neurrian.
5. Oinarrizko eta bigarren mailako hornikuntza eta saneamendu sareetako tarifak jarri eta finkatzea, udalerrri batzuk zerbitzu horien arlo batzuk zeharka edo zuzen ematen dutela albo batera utzita. Tarifok Partzuergoak hartzen duen lurralde-eremu guztian berak izango dira.

Erabiltzailei ezarriko zaien bigarren mailako sareko tarifetan estolden ustiapenatik sortzen den kostua sartuko da, Partzuergoak zerbitzu-ematea bereganaturik duen neurrian. Bitartean hau estolda-tasen bidez finantziatuko da, edo Udalerrri bakoitzak legez ezarrita duen eran.

6. Saneamendurako oinarrizko sare zein estolda saretik egin daitezkeen hondakin-uren isurketen baimena ematea, jarraipena, kontrola eta artapena egitea eta baita egin daitezkeen urraketak zehatzeko ahalgoa, baita gehiegikerizko isurketei bukaera eman edota dagokion ur-hornikuntza kontratuari deuseztasun-adierazpena egitea ere.
7. Eskatutako urteko ur-emia segundoko lau litro edo gehiagokoa izan daitenean, industri eta kontsumo handia duten erabiltzailei zerbitzua oinarrizko hornikuntza-saretik Partzuergoak ematea. Bestelakoetan Udalak emango du zerbitzu hori.
8. Elkaturiko udalerrri guztietako Abonatuen kudeaketa Partzuergoaren egitekoa izango da, bai oinarrizko sarean bai bigarren mailakoan, besteak beste, arlo hauetan: Neurtzeko ekipoen kontrola, zerbitzuak kontratatzea, kontsumoen kontrola, fakturazioa, diru-bilketaren kudeaketa, erreklamazioetaz erabakiak eman, jarduera honegatik izan daitezken zigorrak jartzeko ahalgoa.

Halaber, Partzuergoaren eskumenekoa izango da elkaturiko udalerrrien lurralde-eremuan modu bateratuan Abonatuen kudeaketa zerbitzua araubidez antolatzea.

9. Elkaturiko udalerriei ur-banatze eta estolda zerbitzuetarako teknika eta diruz laguntzea, Partzuergoak bereganatzen ez dituen bitartean, zehaztuko diren baldintzen arabera.
10. Partzuergoan sartuta ez dauden udalerriek eskatzen dutenean ur-hornikuntza edo saneamendu zerbitzuen kudeaketa, beti ere Batzar Nagusiak jarriko dituen baldintzetan.
11. Ur-hornikuntza edo saneamendu arloan edozein Herri- edo Erakunde Pribatuk eskatuta, Zuzendaritza-Batzordeak jarriko dituen baldintzetan, aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eman, instalazioak egin, burutu eta ustiapena, baita eta txostenak egitea, edo antzeko izaerako lanak.



12. Beste Administrazio batzuekin batera uren kudeaketa osoaren arloko zerbitzuak koordinatu eta hitzarmenak egitea, jardunbide egoki eta ohizkoa izan dezan.
13. Uraren kudeaketa osoaren arloan legez aitortzen zaizkion eskumen edo eratzikipenak.
14. Beste Administrazio batzuek eskualdatu edo eskuordetzen dizkieten eskumenak, onespenerabakia hartu ondoren.
15. Partzuergoaren eskumeneoak izango dira beste udal-zerbitzu batzuk ematea. elkarturiko erakundeek berariz erabakitzen badute.

Bere helburuak betetzeko Partzuergoak Toki-Jaurbideaz indarreango araudiak aitortzen dizkion ahalgoak erabili ahal izango ditu, batez ere 3/95 Foru-Arauak jartzen dituenak eta baita, alorkako xedapenetan ere, Uraren Legearenak, esaterako, eta orokorrean zerbitzua emateko behar diren udal-ahalgoak.

9. ARTIKULUA. Udal-Baimenak.

Partzuergoak bere helburuak betetzean lur eta lurpeko erabilera egintzak zein eraikinak eta instalazioak egitea, Toki-Udalbatzek egiten dituzten izaera eta maila berekoak izango dira. Beraz ez dute beharrezkoa izango udal-baimena lortzea ezta ordainerazpenik ordaindu beharko ere. Edozein modutan ere, Partzuergoak Udalei behar den denporaz azalduko die Udalerrietan egin asmo dituen lan eta jarduerak.

10. ARTIKULUA. Kudeaketa-Erak.

Agindutako zerbitzuak eman ahal izateko legez ezarritako edozein kudeaketa modu erabili ahal izango du Partzuergoak.



III. KAPITULUA

PARTZUERGOAREN ARTEZKARITZA-ORGANUAK

11. ARTIKULUA. Gobernu-organuak

Partzuergoa ondorengo Organuek ordezkatu eta administratzen dute:

- A.- Gobernu-Organuak.
 - 1. Batzar Nagusia.
 - 2. Zuzendaritza-Batzordea.
 - 3. Lehendakaria.
 - 4. Lehendakariordea.
 - 5. Kudeatzailea.

- B.- Organu osogarriak.
 - 1. Kontuen Batzorde Berezia.
 - 2. Kontratazio-Mahia.

12. ARTIKULUA. Batzar Nagusia.

1. Partzuergoaren organo gorena da, eta Partzuergoa ordezkatu eta pertsonifikatzen du.
2. Batzar Nagusian Partzuergoa osatzen duten Udalerriak, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta, bidezkoa bada, Ibai-arroko erakundeak egongo dira ordezkatuta.
3. Partzuergoan udalek izango duten ordezkari-tza proportzotasun-irizpide hauetara lotuko da:
 - 25.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanlegoko Udalerriek ordezkari bat.
 - 25.000 eta 75.000 zuzenbidezko biztanlegoko biztanle bitarteko udalerriek, 2 ordezkari.
 - 75.001 eta 150.000 zuzenbidezko biztanlegoko biztanle bitarteko udalerriek, 3 ordezkari.
 - 150.001 eta 300.000 zuzenbidezko biztanlegoko biztanle bitarteko udalerriek, 4 ordezkari.
 - 300.001 eta 600.000 zuzenbidezko biztanlegoko biztanle bitarteko udalerriek, 5 ordezkari.

600.000 biztanletik gorako biztanlegoko udalerriek 300.000 zatikin bakoitzeko ordezkari bat gehiago izango dute.
4. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Batzar Nagusian ordezkari bana izango dute. Erakunde bakoitzeko eskumendun organuak izendatuko du ordezkaria.
5. Ibai-arroko erakundeek, balegokio, ordezkari bana izango dute.



6. Batzar Nagusiko kide guztiak izango dute hizpidea eta hautespidea bilkuretan, Eusko Jaurlaritzaren eta Ibai-Arroko erakundeen ordezkariak izan ezik. Hauek soilik izango dute hizpidea.
7. Udalbatzen ordezkariak boto kopuru jakin batzuk izango dituzte, eta boto horiek hurrengo eskalaren arabera banatuko dira:
- | | | |
|--|-------|---------|
| * Gehienez 1.250 biztanle dituzten udalbatzek | | boto 1 |
| * 1.251 biztanletik 2.500ra bitarteko udalbatzek | | 2 boto |
| * 2.501 biztanletik 5.000ra bitarteko udalbatzek | | 3 boto |
| * 5.001 biztanletik 10.000ra bitarteko udalbatzek | | 5 boto |
| * 10.001 biztanletik 25.000ra bitarteko udalbatzek | | 10 boto |
| * 25.001 biztanletik 75.000ra bitarteko udalbatzek | | 20 boto |
| * 75.001 biztanletik 150.000ra bitarteko udalbatzek | | 30 boto |
| * 150.001 biztanletik 300.000ra bitarteko udalbatzek | | 40 boto |
| * 300.001 biztanletik 600.000ra bitarteko udalbatzek | | 50 boto |
- * 600.000 biztanle baino gehiagoko udalbatzetako ordezkari bakoitzak 20 boto gehiago izango ditu 300.000 biztanleko zatiki bakoitzeko.
8. Elkarturiko udalek beren ordezkariak udalkideen artetik izendatuko dituzte. Partzuergoan ordezkari izango direnak Udalbatzetan beteko duten agintaldi bera izango dute.
9. Partzuergora udalerriak sartuz gero, Estatutu hauetan eta Toki-Jaurbidearen arauterian jarritako izapideak bete ondoren Batzar Nagusiaren osaketa aldatu egingo da. Ordezkaritza artikulua honetako 3. idazatian jarritako proportzotasun-irizpidei lotuko zaizkio. Batzar Nagusiaren osaketa ere aldatu egingo da udalerrri bateko biztanleri kopurua aldatu eta jarri den gora edo beheragoko maila baten sartzea eskatzen duenean.
10. Zinegotzi-kargua utzi ezker, ordezkariak utzi beharra ekarriko du, Udalbatzak berriztatzen diren kasuetan izan ezik. Honelakoetan Partzuergoan bere jardunean jarraituko dute, agizko administrazio gaietarako bakarrik, ondorengoek karguaz jabetu arte. Gehiengo kualifikatua legez eskatzen diren kasuetan ezin izango dute erabakirik hartu.
11. Partzuergora udalerriak sartuz gero, Estatutu hauetan eta Toki-Jaurbidearen arauterian jarritako izapideak bete ondoren Batzar Nagusiaren osaketa aldatu egingo da. Ordezkaritza artikulua honetako 3. idazatian jarritako proportzotasun-irizpidei lotuko zaizkio. Batzar Nagusiaren osaketa ere aldatu egingo da udalerrri bateko biztanleri kopurua aldatu eta jarri den gora edo beheragoko maila baten sartzea eskatzen duenean.
12. Partzuergoko kide bat legez ezarrita dauden izapideak bete ondoren banatzen denean, berez Partzuergoko Batzar Nagusi eta gainontzeko Organuetatik kanpo geldituko da.
13. Batzar Nagusiko idazkariak bertako kidea izango da, hitz egiteko eskubideaz baina ez botoa ematekoaz.

13. ARTIKULUA. Batzarraren Eraketa.



1. Toki-Batzak berriztatu ondoren elkaturiko udalerrietako udalak eratzeko ezarrita dagoen epearen hurrengo 30 egunen barruan eratuko da Batzar Nagusia.
2. Aurrekoren ondorioetarako elkaturiko udalek Partzuergora igorri beharko dute Udala eratzeko bilkura egin eta hiru egunera beren ordezkarien izendapena zihurtatzen duen agiria.
3. Partzuergoaren Batzar Nagusia eratzeko jardunbidea Udaletarako hauteskunde-legeriak eta Toki-Jaurbideko arauteriak esaten dutenari lotuko zaio.

14. ARTIKULUA. Zuzendaritza-Batzordea.

1. Partzuergoaren Lehendakariak, Lehendakariordea eta elkaturiko udaletako ordezkarien artetik hautatutako bost kideak, eta Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak osotuko dute.

Zuzendaritza-Batzordek kide guztiak egingo diren bilkuretan hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango dute, guztiak Eusko Jaurlaritzakoak izan ezik, honek hitz egiteko eskubidea bakarrik izango du.

Ibai-Arroko erakundeetako ordezkariak ere Zuzendaritza-Batzordeko kide izango dira. Hauek egingo diren batzarretan hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez boturik emateko.

Halaber, idazkaria, Zuzendaritza-Batzordeko kidea izango da, hitz egiteko eskubideaz, baina ez boturik ematekoaz.

2. Zuzendaritza-Batzordeko kide bakoitzak boto 1 emateko eskubidea izango du.
3. Partzuergoko Lehendakariak hautatuko ditu Zuzendaritza-Batzordeko udal-ordezkaritzako bost kideak. Beronek ere askatasun osoaz hautapen horri ukoa eman ahal izango dio.

15. ARTIKULUA. Lehendakaria.

1. Partzuergoko lehendakaria Batzar Nagusiko lehendakaria ere izango da, eta Batzar Nagusian hautatuko da, boto eskubidea duten kideen artetik, Batzarreko botoen kopuru legalaren gehiengo absolutuz.
2. Inork ez balu gehiengo nahikorik lortuko, orduan ekitaldi horretan bertan berriz ere bozketa egin beharko litzateke. Boto gehien biltzen dituen hautatuko da lehendakari. Berdinketak elkaturiko udalerrietan guztira boto gehien jaso dituen alderdiaren ordezkariaren alde ebatziko dira. Biak alderdi berekoak balira, adinez gazteenaren alde ebatziko litzateke.
3. Lehendakaria kargutik kentzeko alkatea kargutik kentzeko indarrean dagoen legeriak jasotzen duen jardunbide bera erabiliko da. Batzar Nagusiko botoen legezko kopuruaren gehiengo absolutu bidez ebatzi beharko da kargutik kentzea.



4. Lehendakariaren kargua ordaindu egingo da Batzar Nagusiak ezartzen dituen kasu eta baldintzak betetzen direnean. Bada, ordainketari dagokionez, toki araubideari buruzko arauetan Toki-Batzetako kideentzat xedatutakoa izango da manuzko.

16. ARTIKULUA. Lehendakariordea.

1. Partzuergoko lehendakariordea Batzar Nagusian hautatuko da, boto eskubidea duten kideen artetik, botoen kopuru legalaren gehiengo absolutuz. Inork ez balu beharrezko gehiengo lortuko, lehendakaria hautatzeko jardunbide bera erabiliko da.
2. Lehendakaria eta Lehendakariordea ezin izango dira udalerrri bereko ordezkariak izan.
3. Lehendakariordeak Lehendakaria ordezkatu du, azken honen lanpostua hutsik dagoenean edo Lehendakaria kanpoan nahiz gaixorik dagoenean.
4. Batzar Nagusiko botoen legezko kopuruaren gehiengo absolutu bidez ebatzi beharko da lehendakariordea kargutik kentzea.

17. ARTIKULUA. Kudeatzailea.

Kudeatzailea, kualifikaturiko langileen artetik eta Lehendakaritzak proposatuta Zuzendaritza-Batzordeak hautatutako kide bakarreko organoa da. Batzar Nagusiaren, Zuzendaritza-Batzordearen eta Lehendakariaren menpean dago. Berari dagokio Partzuergoko zerbitzuen zuzendaritza eramatea.

18. ARTIKULUA. Kontuen Batzorde Berezia; Kontratazio-Mahia.

Kontuen Batzorde Berezia eratzea nahitaezkoa izango da, eta Batzar Nagusian dauden partidu eta talde politiko guztietako ordezkariak osatuko dute. Partzuergoko Lehendakaria edo berak eskuordetzen duena izango da horren buru. Estatutu hauetako 24. artikuluan jasotako funtzioak dagozkie.

Kontu Batzorde Bereziko Idazkariaren izendapena, Zuzendaritza Batzordeak egingo du.

Kontratazio Mahaia Sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoaren arabera eratuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.



IV KAPITULUA

EGINKIZUNEN ESKUMENA

19. ARTIKULUA. Batzar Nagusiari dagozkion eskumenak.

Batzar Nagusiari dagozkio ondorengo eratzikipenak:

1. Lehendakaria eta lehendakariordea, eta Kontuen Batzorde Bereziko kideak hautatzea.
2. Aurekontua eta bere egiteratze-oinarriak, eta bere Kontu-orokorra onestea.
3. Entitate publiko berriak Partzuergora gehitzea onestea, baldintza orokor eta berezi aplikagarriak finkatuz. Dagoeneko Partzuergora gehitutako entitate publikoak banatuz gero, banaketa kuota eta gainerako baldintzak onestea.
4. Ibai-arroetako erakundeetako ordezkariak Kide anitzetako Gobernu-Organoeetan sartzea onestea.
5. Estatutuak aldatzea.
6. Partzuergoa desegitea.
7. Ordenantzak eta araudiak onestea.
8. Kudeatzen diren zerbitzuetarako tarifak eta ordainarazpenak jarri eta finkatzea.
9. Ondasunak eta eskubideak eskuratzea eta horien gaineko transakzioa, aurrekontua egikartzeko oinarrietan ezarritako mugen barruan.
10. Partzuergoaren planak edo inbertsio-programak, onetsi, aldatu edo berraztertzea.
11. Aurrekontu zuzkidurarik ez denean epaibidean ez diren kredituak aitortzea eta kreditu-eragiketak ituntzea. Azken hauei dagokienez, ekitaldi ekonomiko bakoitzean pilatutako zenbatekoa aurrekontuaren errekurtsio arrunten ehuneko hamarretik gorakoa izango da.
12. Eskatzen duten udalerrietako ur-hornikuntza eta saneamendurako tokiko edo bigarren mailako sareen kudeaketa erabakitzea .
13. Partzuergoak emango dituen zerbitzuen kudeaketa era onartzea, beti ere, Estatutu hauetako 10. artikuluan jartzen duen eran.
14. Udaleko beste zerbitzu batzuk eman daitezten onestea, Estatutu hauetako 8.15) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
15. Partzuergoaren helburu orokorrak betetzeko eraginkortasuna sendotuko duten jarduera osagarriak edo eratorriak burutu daitezten onestea, Estatutu hauetako 6.3) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.



16. Elkartu gabe dauden udalerriekin itunepetuko diren lankidetzak-hitzarmenak onartzea, Estatutu hauetako 8.10 atalak jarritakoarekin bat etorriz.
17. Beste administrazio batzuek uraren arloan eskualdatu edo eskuordetzan ematen dizkioten eskumenak onartzea
18. Langileen plantilla onestea eta aldatzea.
19. Hitzarmen kolektiboak onartzea.
20. Judizioko eta administrazioak burutzea eta Batzar Nagusiaren eskumeneko gaietan Partzuergoa defendatzea. Kasu horietan, beharrezkoak diren botereak ematea.
21. Dagozkion eratzikipenak eskuordetzan ematea, Zuzendaritza-Batzordea, Lehendakariari, edo kudeatzaileari.
22. Estatutuek Batzar Nagusiari bereriz aitortutako dioten beste edozein jardun

20. ARTIKULUA. Zuzendaritza-Batzordeari dagozkion eskumenak.

Partzuergoaren Zuzendaritza-Batzordeari ondorengo hauek dagozkio:

1. Bere eskumeneko arloan Batzar Nagusiak jartzen dizkion gidalerroak garatzea.
2. Batzar Nagusiak eskatuta beronen eskumenekoak diren arloan, txostenak ematea.
3. Barne-jaurpideko jarraibide nagusiak ematea.
4. Onetsi diren aurrekontuen era betearazpen-oinarrien arabera ekonomi-kudeaketa zuzentzea.
5. Kudeatzailearen txostena entzun ondoren, zerbitzuen antolaketa orokorra, langileen egitura, Lanpostuen Zerrenda eta ordainsarien kopuruak onestea.
6. Judizioko eta administrazioak burutzea eta Zuzendaritza-Batzordearen eskumeneko gaietan Partzuergoa defendatzea. Kasu horietan, beharrezkoak diren botereak ematea.
7. Aholkularitza eta laguntza zerbitzuak emateko onartu, instalakuntzak egin, burutu eta usitiapena egin, eta baita Ur-hornikuntza eta sananeamendu arloan proiektuak, txostenak edo antzeko izaerako jardunak egitea edozein Herri- zein Erakunde Pribatuk eskatuta, estatutu hauetako 8.11. atalak jarritakoarekin bat etorriz.
8. Ondasunak eta eskubideak eskuratzea eta horien gaineko transakzioa, aurrekontua egikaritzeko oinarrietan ezarritako mugen barruan.
9. Kreditu-eragiketak ituntzea. Horien zenbatekoa ez da aurrekontuaren errekurtsio arruntan ehuneko hamarretik gorakoa izango ekitaldi ekonomiko bakoitzean.



10. Lurzatiak, ondasun gaindikinak, eta erabiltekoak ez diren ondasunak, jaregitea eta inorenganatzea.
11. Partzuergoko kudeatzailea izendatu eta kargutik kentzea, Lehendakariak hala proposatuz gero.
12. Aholkulariak izendatzea zerbitzuen errentamendurako formulapean.
13. Konfiantzakotzat jotzen diren lanpostuak betetzen dituzten edo aholku bereziak ematen dituzten behin-behineko langileak izendatzea eta kargutik kentzea; eta Kideanitzeko Organoetako idazkariak izendatzea, Kontratazio Mahaikoa izan ezik.
14. Batzar Nagusiak onartutako langile zerrendekin bat etorritik, enpleguak izendatu eta erretiroa ematea, eta, hala dagokien kasuetan, diziplina espedienteak ebatzea, kaleratzea barne.
15. Obra eta zerbitzu proiektuak onestea, kontratatzeke edo emakidatzeko beharrezkoa denean.
16. Obrak, zerbitzuak eta hornikuntzak kontratatzea eta emakidatzea, Aurrekontua Betearazteko Arauan xedatutakoarekin bat etorritik.
17. Udalerri, industria eta beste kontsumitzaile handi batzuentzako oinarritzako sareko hornikuntzarako baldintzak onestea.
18. Uraz baliatzeko emakidak eta isurketa-baimenak egiteko eskaera eta egingo diren baldintzak ematea.
19. Derrigorrezko desjabetzapena ezartzea, eta bidezkoa bada, desjabetzapena egin duen erakundeari mozkinak eskatzea.
20. Aurrekontua betearazteko oinarriari loturik gastuak onestea
21. Batzar Nagusiak, edota Lehendakariak eskuordetzan emango dizkieten eratzikipean .
22. Berari dagozkion eratzikipean Lehendakariari edo Kudeatzaileari eskuordetzan ematea.
23. Batzar Nagusiak edo Lehendakariak Estatutu hauetan egiteratzeko berariz utzita ez dituzten eskumenak.

21. ARTIKULUA. Lehendakariari dagozkion eskumenak.

Lehendakariak ondorengo eratzikipean izango ditu:

1. Edozein eratako negozio-juridikoetan, Herri- zein Erakunde Pribatuen aurrean Partzuergoa ordezkatu, mandatuak eta aginteak eman eta eskuordetzan emateko ahalmena izango du .



2. Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen saiotan deialdiak egitea, buru izatea, etetea eta bukatutzat ematea; berdinketa kasuak kalitatezko botoaren bidez ebatzi ahalko ditu.
3. Partzuergoak hartutako erabakiak argitara eman, betearazi, eta bere zerbitzuak eta obrak egoki bete daitezcan jagoatea.
4. Obra eta zerbitzu proiektuak onestea, kontratatzeke edo emakidatzeko beharrezkoa denean.
5. Obren, zerbitzuen eta hornikuntzen kontratazioa eta emakida onestea, Aurrekontua Betearazteko Arauan xedatutakoarekin bat etorriz.
6. Aurrekontuaren oinarrietan jartzen diren mugen barruan gastuak erabaki, ordainketak agindu eta kontuak eman.
7. Judizioko eta administrazioko akzioak burutzea eta Partzuergoa defendatzea Lehendakariaren eskumeneko gaietan, eta premiazko arrazoiak direla medio, Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza-Batzordearen eskumeneko gaietan. Azken organo hauei horren berri eman beharko zaie, berrespena eman dezaten. Kasu horietan, beharrezkoak diren botereak ematea.
8. Presakotasun ezingerotatutako kasuetan berak bere kabuz eta bere ardurapean beharrezkoak deritzon neurriak hartzea, eskumena duen erakundeari horren berri berehala emanez.
9. Edozein eratako jardunbideetan Kontratazio-Mahaiaren buru izatea.
10. Zuzendaritza-Batzordeko elkaturiko udalerrietako bost ordezkariak hautatzea eta ukoa ematea.
11. Bere eskurantzaren egikaritzea eskuordetzea, artikuluko 2, 7 eta 8. zenbakietan agindutakoak izan ezik.

22. ARTIKULUA. Lehendakariordeari dagozkion eskumenak.

Lehendakariordeak Lehendakaria ordezkatzeko du, hutsune-, kanpoaldi- eta gaisotasun-kasuetan.

Lehendakariak ordezkotza eman diezaiotke Lehendakariordeari bere jardunaren betetzea, Batzar Nagusi eta Zuzendaritza-Batzordeko bilkuretarako deialdiak egin eta mahai buru izan eta estatutu hauetako 21 artikuluko 7 eta 8. idazaztietan jarritakoak izan ezik.

23. ARTIKULUA. Kudeatzaileari dagozkion eskumenak.

Kudeatzailearen eskumenak ondorengo hauek izango dira:

1. Partzuergoko Zerbitzuak zuzentzea, bertako buru dela.



2. Zuzendaritza-Batzordeari eta Lehendakariari Partzuergoaren jarduna eta bere helburuak betetzeko ongi deritzon neurriak proposatze
3. Partzuergoaren organuek emango dituzten akordio eta erabakiak bete eta, hauek ordezkotza berariz ematen dietenean jarduna bereganatzea.
4. Aurrekontuaren betetze-oinarriei jarraiki dagozkion ordainketak agintzea.
5. Partzuergoaren Organuek aztertu, ezagutu, iharduki eta onartu behar dituzten gai eta agiriak, gertatu, bildu eta antolatu.
6. Partzuergoaren Organuetako bilkura eta batzarretan izatea hitz egin baina botorik emateko eskubiderik gabe.
7. Agiriei bidea eman eta egin diren operazio eta zerbitzuei buruz errolda eta estadistiken ardura eramatea.
8. Urtealdi bakoitzaren bukaeran Partzuergoaren kudeaketa jasotzen duen Txostena Zuzendaritza-Batzordeari igortzea.
9. Diziplina prozedurak abiaraztea, hala dagokionean.
10. Beren beregi agintzen edo eskuordetzen zaizkion gainerakoak.

24. ARTIKULUA. Kontuen Batzorde Bereziari dagozkion eskumenak.

Kontuen Batzorde bereziari dagozkio Batzar Nagusiak, Zuzendaritza-Batzordeak eta Lehendakariak agintzen dizkion aurrekontu eta aurrekontuetatik kanpoko arazo guztiak azterketa, azterlanak egin eta informatzea. Edozein modutan aginduzkoa izango da Batzorde horrek Aurrekontua eta Kontu-Orokorren berri ematea.

25. ARTIKULUA Kontratazio-Mahaiari dagozkion eskumenak.

Kontratazio-Mahaiari dagokio esleipen-jardunbideetan legez ezarrita dituen eskumenak egikaritzea, batez ere Kontratazio-organuari esleipen-proposamena egitea.



V. KAPITULUA

GOBERNU-ORGANUEN JARDUNBIDEA

26. ARTIKULUA. Bilkurak egiteko tokia.

Batzar Nagusia eta Zuzendaritza-Batzordearen bilkurak, ohizkoak, nahiz ohiz bestekoak, Partzuergoaren egoitzan edota Lehendakariak aukeratuko duen tokian izango dira. Hala ere kasu berezi batzuetan eta Organu bakoitzaren ordezkarien gehiengoak hala erabakitzen duenean Partzuergoa osotzen duten Udalerrietako Udaletxeetan edo elkarturiko gainontzeko Erakundeen egoitzetan ere egin ahal izango dira bilkurok.

27. ARTIKULUA. Bilkuren Aldirotasunaz.

1. Batzar Nagusiak ohizko bilkuraldiak sei hilabetero izango ditu. Ohiz bestekoak izango dira Lehendakariak, Zuzendaritza-Batzordeak, edota, gutxienik, botoa emateko eskubidea duten legezko kopuruaren herenak eskatzen dutenean. Azken kasu honetan bilkura egiteko epea gehienez eskatu den egunetik hasita hamargarren egunekoa izango da.
2. Zuzendaritza-Batzordeak ohizko bilkura hileroko egingo du, eta ohiz bestekoa Lehendakariak edota gutxinez hiru kidek eskatzen dutenean. Azken kasu honetan batzarra eskatu den egunetik hurrengo lau egunetako epean egin behar izango da.

28. ARTIKULUA. Deialdiak.

1. Batzar Nagusiko batzarretarako bilkura jarriko den eguna baino lau egun lehenago egin beharko da.

Zuzendaritza-Batzordekoak bilkura jarriko den eguna baino hiru egun lehenago izango dira.

Kasu biotan Lehendakariak presazkotasunaren arrazoiak eman dezanean deialdirako epea laburtu ahal izango da.

2. Deialdiaren iragarpenak batzarraren data, tokia, ordua eta gai-zerrendan sartutako gai guztiak jaso behar ditu. Gai zerrendan berariaz agertzen ez diren gaien inguruan ezingo da erabakirik hartu, salbuespen batekin: batzarkideen legezko boto kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoz erabaki behar duen organoak aurretiaz premiazkotasuna kontuan hartu duen kasuan.



3. Gai-zerrendan sartutako gaien hariko dokumentazio osoak –eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako ere oinarri izan beharko duenak– elkaturiko erakundeen ordezkarien eskura egon behrako du Partzuergoaren idazkaritzan.

29. ARTIKULUA. Eraketa.

1. Batzar Nagusiaren eraketa lehen deialdian baliozkoa izateko Batzarreko botoen kopuru legalaren herena ordezkatzeko duten kideak bertaratu beharko dira.
2. Zuzendaitza-Batzordea legez baliozko izateko botoa emateko eskubidez, batzarkideen legezko kopuruaren gehiengo osoa beharko da. Kopuru hau ezbalitz nahikoa izango bigarren deialdian egingo da, lehenengoa jarri eta ordu erdi beranduago. Honako hauetan nahikoa izango da hiru kide bertaratzea.
3. Nolanahi ere organuko Lehendakaria edota legez ordezkatzeko dituztenek bertan egon behrako dute.

30. ARTIKULUA. Erabakiak hartzea.

1. Partzuergoko Organuen erabakiak bertan dauden kideen gehiengo soilez hartuko dira, besterik agintzen ez den bitartean. Bozketan berdinketa gertatuz gero beste bozketak bat egingo da, eta berriro berdinketak jarraituz gero Lehendakariaren botoak ebatziko du.
2. Partzuergoa desgiteko botoa emateko eskubidea duten Batzar Nagusiko boto kopuru legalaren bi herenen aldeko botoa behar da, Estatutu hauetako 45.4 artikulua jasotzen dituen kasuetan izan ezik, eta 43. artikulua aipatzen duen behartutako banaketarako.
3. Batzar Nagusiko botoen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko da arlo hauetan erabakiak hartzeko:
 - a. Alkaturiko Udalek eman behar duten ekarpenak jarri eta aldatzea, beti ere beraien aurrekontu arrunten arabera izan beharko dute.
 - b. Entitate publiko berriak sartzeko.
 - c. Elkaturiko udalerriak banatzearen ondorioz kitapena eta beroneri buruzko baldintzak onartzea.
 - d. Finantza- edo kreditu-eragiketarako onetsi eta kitapen eta luzapenak emateko, horien zenbatekoak Partzuergoaren aurrekontuaren %10 gaitzen badute.
 - e. Ondasunak inorentzako, horien zenbatekoak Partzuergoaren aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko hogeia gaitzen badute.
 - f. Estatutuak aldatzea.



4. Partzuergoko Organuen bilkuretako batzarretako Agiria jaso egingo da. Deialdiaren zernolakoak, bertaratutako ordezkariak, eztabaideen laburpena eta hartu diren erabakiak bildu beharko dira. Agirioi Lehendakariaren Oniritziaz, edo hala badagakio Lehendakariordearenez Organuaren idazkariak baiezkoa emango die.
5. Aurreko idazatietan jarritako arloei buruz hartzen diren erabakien berri elkaturiko eta ordezkaturiko erakunde guztiei emango zaie legez ezarritako epeen barruan egoki deritzoten errekursoak jar ditzaten.



VI. KAPITULUA

EKONOMI-JAURBIDEA

31. ARTIKULUA. Arautegi ezargarria.

Partzuergoko Ogasuna Estatutu hauetan ezarritako baliabideek eratuko dute.

32. ARTIKULUA. Ekonomi-baliabideak.

Partzuergoko Ogasunak jarraiko baliabideak izango dira:

1. Ondarearen errenta eta ekoizkinak.
2. Europako Batasuna, Estatu, Autonomi Elkartea eta Lurralde Historikotik edo bestelako edozein Herri-Erakunde zein Pribatutik jaso dezakeen dirulaguntza, laguntza, legatu eta dohaintzak.
3. Ur-hornikuntza eta saneamendu zerbitzuaren ustiapenen etekinak, eta bereziki, ondorengo hauek:
 - a.- Oinarrizko sarerako ur-hornikuntzagatiko tarifen etekinak, elkarturik edo elkartugabeko Udalerrei, azken kasu honetan gai hontaz hitzarmenik balego, eta baita industri eta kontsumo handia duten erabiltzaileenak.
 - b.- Hondakin-urak tartean hartu eta arazteagatiko tarifen etekinak.
 - c.- Abonatuen Kudeaketari dagozkion tarifen etekinak.
 - d.- Partzuergoak beren kudeaketaz jabetzen denean bigarren mailako ur-hornikuntza eta saneamendu sareari dagokion ustiapena mantentzeko tekniko, hala badagokio, berriztapenagatiko tarifen etekinaren zatia.
4. Kontagailu eta neurtzeko gainontzeko tresnen alokairu eta artapen-kuoten etekina.
5. Partzuergoak egin obra, instalazio, edo zerbitzuak finantziatzeko indarreango arauteriak araupetzen dituen kontribuzio bereziak.
6. Partzuergoko eskumenen eremuetako isun eta zehapenen ekoizkinak.
7. Organo eskudunek erabaki ditzaten kreditu-eragiketa eta antzerako ekoizkinak.
8. Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpenak. Erakunde honek bere Aurrekontu osotik Ur-Hornikuntza eta Saneamendurako, jarriko duen zenbatekoa Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleriaren arabera Partzuergoak zerbitzua ematen dion biztanle kopuruaren proportzioaren arabera izango da. Urtero finkatuko dira ekarpenok.



9. Partzuergoan barne-sartutako Erakundeek ekarpenak. Elkarturiko erakundeek Partzuergoko Ogasunera zenbatekorik ekartea erabakitzeotan, betebeharrak duten ekonomi-ekarpenak egiteko dagozkion neurriak hartu behar izango dute. Hala ere, Partzuergoak elkarturiko erakundeek kontra egin ahal izango du, beraietan Partzuergoari egin beharreko ekarpenek dagozkien zenbatekoa aurreikusten ez bada.
10. Estatuak, Autonomi-Elkarte edo beste edozein Herri edo Erakunde Pribatuk, Partzuergoak bere eskumeneko arloan agindutako zerbitzuak edo kudeaketatik izandako ekonomi-ekarpenak.
11. Bere alde ezar daitezkeen hitzartu edo hitzartu gabeko zergetan parte hartzeak.
12. Zerbitzu eta hustiapenen etekinak, eta legez lortu daitezkeen beste edozein sarrera.

33. ARTIKULUA. Ekarpeneren ordainketa.

1. Partzuergoan barne sartutako Erakundeek ekonomi-ekarpenak Batzar Nagusiak ezarritako eran eta epeetan egingo dira. Ekarpenerok derrigorrezko eta lehentasunezko ordainketa joko dira ondorio guztietarako.
2. Udalerrietako baten bat bere betebeharreko ordainketan atzeratuko balitz, Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak arautzeko Martiaren 30ko 3/95 Foru Arauako 19. Artikuluko 2 idazatian jarritako eran ekingo zaio.
3. Partzuergoko aurrekontua elkarturiko erakundeena baino geroago onartzen baldin bada, eta hauek izendaturiko ekarpenak baino haundiagoak aurreikusten baldin baditu gaindikina hurrengo urtealdian ordainduko da.

34. ARTIKULUA. Kreditu-Bermeak.

Mailegu-eragiketa bat egiteratzean, berme osogarri moduan eskatuko balitz Partzuergoan barne-sartzen diren udalen abal, hauek euren Aurrekontuaren zenbatekoaren eina eman beharko dute.

35. ARTIKULUA. Aurrekontua onartzea.

Aurrekontua bera eta aurrekontua egikaritzeko oinarriak Batzar Nagusiak onetsiko ditu urtero, lege ezarritako betekizunekin eta epeetan.

36. ARTIKULUA. Udalekin kitapenak.

Hiruhilabetero Partzuergoak eta Udalek oinarritzeko sareko hornikuntza zein bigarren mailako sareko fakturaketa eta Partzuergoari agindu zaizkion udal-tarifena kudeaketarenari buruzko kitapenak egingo dituzte.



Partzuergoak bigarren mailako sarearen kudeaketa bereganatu dezanean, Udalerriko banaketa sareko erabiltzailei fakturatzeko zaien sarrera guztiak jasoko ditu. Bestelakoetan, Udalek bere banaketa-sarea kudeatzen dutenean Partzuergoak berak hornitu dituen emariegatikako zenbatekoa jasoko du. Udalarri igorriko dio zenbateko hori eta bigarren mailako sareko fakturazioen arten dagoen aldea.

Diru-bilketa sari gisa, Partzuergoari agindu zaizkion udal-tasen ehuneko bat jasoko du. Horren zenbatekoa Batzar Nagusiak erabakiko du.

37. ARTIKULUA. Aurrekontuaren kitapena.

Urtealdi bakoitzeko emaitzak ustez izan dezaken saldo positiboak, hurrengo urtealdietako gastuak finantziatzeko izango dira soilik. Horien aurrekontuetan sartuko dira soilik kredituen aldaketak egin ondoren.

38. ARTIKULUA. Kontuak ematea.

Urteko kontuak Batzar Nagusiak onetsiko ditu, legez ezarritako betekizunekin bat etorritik.

39. ARTIKULUA. Tarifaren Araubidea.

1. Partzuergoak oinarritzeko sare eta bigarren mailako hornikuntza, eta saneamendurako oinarritzeko eta bigarren mailako sareetako zenbatekoa ezarri eta finkatuko du.

Aipatu zerbitzu bereizgarrien ziozko tarifak beretsuak izan beharko dute partzuerturiko udalerrien geografi-eremu guztian. Tarifa bi edo gehiago baten bildu ahal izango dira dagozkien zerbitzuak bakar bateratua eman edo zehazten direnean.

2. Tarifaren egitura eta maila bateratasun, lurralde, berdintasun eta nahikotasun erizpideetan oinarrituko da.
3. Tarifek instalakuntzako inbertsioak, ustiapenetik eta, horiek berriztatzearen ondorioz sorturako gastuak bete beharko ditzute.

Bigarren mailako sareko erabiltzeentzako tarifek zerbitzuaren kostu osoa barnesartuko dute, hau da, oinarritzeko sareko zerbitzuen kostuez gain bigarren mailako sarearen berarizko gastuak ere jasoko ditu.

Horrela jarritako hornikuntza eta saneamendurako tarifek tokiko sarean lehen aldiz jartzeagatikoko gastuak finantzatzeko beste formula batzuekin batera izango dira.

4. Hala ere, Partzuergoak zerbitzua ematen duen neurrian, bigarren mailako erabiltzaileentzako tarifek estolda-zerbitzuaren berariazko kostuak gehituko dizkiote bakarrik. Ordura arte bakarrik sartuko dira tartean hartze eta arazketaren ondorioz sortutako kostuak, gastu orokor, egiturazko, eta Abonatuen kudeaketari dagozkienez gain.



Era berean, Partzuergoak bigarren mailako sarean hornikuntzarako zerbitzurik ematen ez duen bitartean, udalek ur hornikuntzarako bigarren mailako sareak behar bezala kudeatzearen ondoriozko kostu errealak ordaintzeko beharrezkoak diren tarifa osagarriak onetsi ahal izango dituzte.

5. Estatutu hauetako 8.13 artikuluan xedatutakoaren arabera Partzuergoari uren kudeaketa osoarekin zerikusirik duen edozein zerbitzu ematea agintzen zaionean, honek dagozkion tarifek onetsiko ditu.
6. Batzar Nagusiak bere garaian erabaki ahal izango du uraren hornikuntza eta saneamendu zerbitzuagatik tarifa bateratua jartzea.



VII KAPITULUA

LANGILEEN JAURBIDEA

40. ARTIKULUA. Jaurbidea.

Partzuergoko plantilla osatzen duten langileei aplikatu beharreko araubide juridikoa atxikipen administrazioko langileei dagokiena izango da.



VIII. KAPITULUA

GEHITZEA ETA BANATZEA

41 ARTIKULUA. Entitate publiko berriak gehitzea.

1. Entitate berri bat Partzuergora gehitzeko honako hauek beharko dira:
 - a) Interesa duen entitatearen eskaera.
 - b) Batzar Nagusiko botoen legezko kopuruaren gehiengo absolutuak onestea. Gehitzeko erabakian gehitzeko jarritako baldintza orokorrak zein bereziak adierazi beharko dira.
 - c) Entitatearen gehitzeko erabakia. Erabaki horretan Partzuergoren Estatutuak onetsi eta onartuko dira, baita Partzuergoak sartzeko jarri dituen baldintzak ere.
2. Dagoeneko existitzen diren erakunde elkarteak gehituz gero, aurreko 1. atalean aurreikusitakoaren arabera jardungo da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 127.5 artikulua aipatutako aktibo eta pasiboen lagapen globala ekarriko du.

Integrazioa adostu ondoren, elkartutako entitateak modu indibidualean gehituko dira Partzuergora, gainerako kideak bezalaxe.
3. Partzuergoan entitate berriak gehitzea Euskal Herriko eta Bizkaiko aldizkari ofizialetan argitaratuko dira.

42. ARTIKULUA. Borondatezko banatzea.

1. Partzuergoa osatzen duen edozein entitatek hura borondatez uzteko honako hauek beharko dira:
 - a. Banatzeko erabakia legez hartzea.
 - b. Partzuergoari egin beharreko ekarpenak ordaintzen egunean egotea.
 - c. Banaketa kuota Batzar Nagusiko botoen lege kopuruaren gehiengo absolutuz onartzea. Batzar Nagusiak hartutako erabakian horretarako baldintzak jarriko dira.
2. Banatzeko eskubidea baliatzen duenari dagokion banaketa kuota kalkulatzeko honako banaketa irizpide hau hartuko da kontuan:
 - * Banatzen den entitateak gehitu zen unean emandako ondasunak itzuliko dizkio Partzuergoak.



- * Partzuergoak edo beste erakunde batek azpiegituretan egindako hobekuntzak edo inbertsioak, eta Partzuergoaren titulartasunekoak, eta horiek egiteko beharrezko eskubideak eta ondasunak, banatuko den entitatearen erabilera eskusibokoak badira, entitate horri emango zaizkio; banatzeko unean Partzuergoaren balantzean inbertsio horietarako ageri den kontabilitate balio garbia ordaindu beharko dio entitateak Partzuergoari.
 - * Azpiegituren batek banatzen den entitateaz gain Partzuergoan jarraituko duen beste entitatearen bati zerbitzu ematen badio, orduan Partzuergoak eta banatuko den entitateak hitzarmen bat sinatu ahal izango dute; hitzarmen horren bitartez, banatuko den entitateari zerbitzuak ematen jarraituko du Partzuergoak, eta entitate horrek zerbitzu horien truke kopuru bat ordaindu beharko du; kopurua azpiegitura hori kudeatzeko Partzuergoak dituen gastuetako partaidetzaren neurrikoa izango da.
3. Banaketa kuota zehaztu ondoren banatuko da entitatea Partzuergotik, kuota positiboa bada edo zorra ordaindu bada, kuota negatiboa izanez gero.
 4. Entitate bat edo batzuk Partzuergotik bereizteak ez du esan nahi Partzuergoa desegin egingo denik, baldin eta gainerako kideek Partzuergoak jarraitzea erabakitzen badute eta bi maila desberdineko administraziok bertan jarraitzen badute.
 5. Bereizketa eskubidea gauzatzearen ondorioak 40/2015 Legean eta aplikagarria den gainerako legezko araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira.

43. ARTIKULUA. Behartutako banaketa.

Partzuergoaren Batzar Nagusiaren iritziz Partzuergoan elkaturiko erakunderen batek larriki eta behin eta berriro urratu baditu legeetan edo Estatutuetan ezarritako betebeharrak, orduan, kasuan kasuko espedientea abiarazi ondoren, erakundea Partzuergotik banatzea erabaki ahal izango da, Batzarreko botoen kopuru legalaren bi herenek horren aldeko erabakia hartuz gero.



IX. KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

44. ARTIKULUA. Estatutuen aldaketa.

1. Partzuergoaren Estatutuak aldatu ahalko dira lehendakariak, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiko botoen kopuru legalaren gutxienez herena ordezkatzeko duten kideek hala eskatuta.
2. Aurreko idazatian jarritako ekimena hartu ondoren, eta Batzar Nagusia ohiz besteko bilkuran erabakia hartuta, egindako proposamenen arabera Estatutuen aldaketaren haserako onepenari ekingo zaio, eskatzea egoki iritzitako txostenak emanda.
3. Estatutuak aldatzeko proiektua, 30 eguneko jendarean egon ondoren, Batzar Nagusiko botoen kopuru legalaren gehiengo absolutua ordezkatzeko duten kideen aldeko botoz onetsi behar da.
4. Horrela onetsitako Estatutuen aldaketa Partzuergoaren osotzen duten Erakunde guztiei jakinaraziko zaie, elkarturiko Erakundearen gehiengoak bakoitzaren berarizko legeriaren eskakizun arabera onetsi dezaten.
5. Atxikipen administrazioa aldatzeak Partzuergoko Estatutuak aldatzea ekarriko du, gehienez sei hilabeteko epean, atxikipen aldaketa gertatu den aurrekontu ekitaldiaren hurrengo hasten denetik zenbatuta.
6. Estatutuen aldaketa behin betiko onetsi ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.



X. KAPITULUA

PARTZUERGUA DESEGITEA

45. ARTIKULUA. Zioak

Partzuergoaren desgitea honako hauetan egingo da:

1. Edozein dela inguruabarra, etorkizunean eratzeko izandako helburuak bete ezin diranean.
2. Legezko xedapen bidez.
3. Batzar Nagusiak botoen kopuru legalaren bi herenen aldeko botoz, eta Partzuergoan elkartutako erakundeen gehiengoarekin, legedi zehatzak horretarako eskatutako quorumaz hala erabakitzen duenean.
4. Beste erakunde publiko pribatu batekin batera bildu, bereganatu edo integratzeagatik, erakunde horren eskumenak Partzuergoaren eskumenekin konkurrenteak badira; kasu horretan aski izango litzateke Batzar Nagusiko botoen kopuru legalaren gehiengo sinplea ordezkatzan duten kideen aldeko botoarekin.

Beste erakunde publiko batekin batera bildu, bereganatu edo integrazio kasuetan, 40/2015 Legearen 127.5 artikuluan aurreikusitakoari erreparatuko zaio aktiboak modu globalean laga eta horren ondorioei dagokienez; Partzuergoa likidaziorik gabe desegingo litzateke.

46. ARTIKULUA. Jardunbidea

1. Desegite erabakiak jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 30 eguneko epean Batzar Nagusiak Batzorde Likidatzailea izendatuko du, atxikipen administrazioari lotuta edo horren mendekoa; lehendakariak eta bost kidek osatuko dute. Batzorde horretan lehendakariak hautatutako hiru teknikari sartuko dira aholkularitza lanetan jarduteko. Horrez gain, batzarretara arlo horretako teknikari edo adituak deitu ahalko dira, soilik haien espezialitateko gai zehatzetan iritzia, txostenak edo irizpenak emateko.
2. Kitapen-Batzordea, lau hilabeteko gehienezko epean Partzuergoaren ondasun, zerbitzu eta eskubideen zerranda egin, beraren baliabide, zama, eta zorrak adierazi eta langileak zerrendatuko ditu.
3. Egindako inbentarioa ikusita, Partzuergoko kide bakoitzari dagokion likidazio kuota kalkulatu du Batzorde Likidatzaileak, eta horretarako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:
 - Batzar Nagusiko kide den erakunde bakoitzari erakunde horrek emandako ondasunak itzuliko dizkio Partzuergoak.
 - Partzuergoak edo beste erakunde batek azpiegiturretan egindako hobekuntzak edo inbertsioak, eta Partzuergoaren titulartasunekoak, eta horiek egiteko beharrezko eskubideak eta ondasunak, Batzarreko kide den entitatearen erabilera eskusibokoak



badira, entitate horri emango zaizkio. Desegiteko unean Partzuergoaren balantzean inbertsio horietarako ageri den kontabilitate balio garbia entitate horren saldo hartzekodun gisa jasoko da, eta diruzaintzako banaketan eskusibotasunez hartuko da kontuan.

- Inbertsio horietakoren batek entitate bati baino gehiagori zerbitzua ematen badie, orduan bakoitzari kopuru bat esleituko zaio, desegiteko unean inbertsio horiek zuten kontabilitate balio garbian oinarrituz, azpiegitura hori kudeatzeko Partzuergoak dituen gastuetako partaidetzaren neurrian; entitate horien saldo hartzekodun gisa jasoko da, eta diruzaintzako banaketan eskubideak murriztuz hartuko da kontuan.
- Diruzaintza, egonez gero, desegiteko unean honela banatuko da:

Batzarreko kide den erakunderen batetik jasotako kopuruak itzuli egingo ditu Partzuergoak, Batzarreko kide diren beste entitate batzuentzako azpiegiturak egiteari lotutakoak.

Gainerako diruzaintza, egonez gero, Partzuergoko kide izan diren bitartean entitate bakoitzak, hala badagokio, sortutako diru-sarreraren partaidetza irizpidearen arabera likidatuko da, Partzuergoarekiko entitate bakoitzak ordaintzeke duen zorra likidazioan kenduz.

4. Kitapen-proposamenak onetsia izan dadin, Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko du. Onartu izan ondoren elkarturiko erakunde guztientzat betebeharrekoa izango da.
5. Kapitulu honetan aurreikusita ez dauden kasuetarako 40/2015 Legean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa beteko da.



XEDAPEN IRAGANKORRA

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak Partzuergoko Gobernu-Organuetan hitz eta botoa emateko dituen eskubide beretsuekaz ordezkaturik egon ahal izango da, Foru-Erakundeak ezarrita dituen baldintza beretsuetan parte hartzen badu.

Aurreko horretarako ez da Estatutuak aldatu beharrik izango eta nahikoa izango da Eusko Jaurlaritzako eskumendun Organuak egindako jakinerazpen formala.

AZKEN XEDAPENA

BAKARRA.- Estatutu hauetan aurreikusi ez diren kasuetan Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Bizkaiko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen martxoaren 30eko 3/95 Foru Arauan aurreikusitakoa aplikatuko da, baita toki araubidearen gainerako legedian ezarritakoa ere, aplikagarria denean.




EGINBIDEA

BILBON, BI MILA ETA HEMERETZIKO EKAINAREN HOGEITA LAUAN, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN IDAZKARIAK EGINBIDE HAU EGIN DU, JASOARAZTEKO TRANSKRIBATUTAKO ESTATUTUAK BATZAR NAGUSIAK ONARTU ZITUELA MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPIKO ABENDUAREN BIAN EGINDAKO BILERAN ETA PARTZIALKI ALDATU ZIRELA BI MILA ETA LAUKO EKAINAREN HOGEITA BIAN (2005EKO MAIATZAREN 3KO BAO), BI MILA ETA BOSTEKO EKAINAREN HOGEITA BIAN (2006KO OTSAILAREN HOGEITA LAUKO BAO), BI MILA ETA HAMALAUKO AZAROAREN BOSTEAN (2015EKO UZTAILAREN ZAZPIKO BAO) ETA BI MILA ETA HEMERETZIKO MARTXOAREN HAMAHIRUAN (2019KO EKAINAREN HAMAIKO BAO) EGINDAKO BILERETAN.

IDAZKARIAK,




Iz.: Patricia Ruiz Soroa